



LANDARBASO TRAIL 2026 ARAUDIA:

1.- DATA ETA LEKUA

Landarbaso Trail 2026, maiatzaren 3an izango da, goizeko 10:00etan. Irteera eta amaiera puntuak [Listorretako gunean](#) egongo dira.

2.- IBILBIDEA

Landarbaso Trail, Aiako Harria Parke Naturelean barrena joango den 18 kilometroko mendi lasterketa da. Ibilbideak 900 metroko desnibel positiboa du eta Urdaburu eta Aldurako tontorrak igotzeaz gain, Aizpitarteko kobak ikusi eta baso eta erreka zoragarrietatik igarotzeko aukera ahalbidetzen du.

3.- MAILAK

18 urtetik gorako atletek parte har dezakete soilik. Bi maila izango dira:

- Helduak emakumezkoak: 18 urte eta gorakoak.
- Helduak gizonezkoak: 18 urte eta gorakoak.

4.- IZEN-EMATEA

* Izen-emate prezioak:

- Urdaburuko bazkideak: 17€
- Gainontzekoak: 20€

* Informazio garrantzitsua:

- Izena emateko epea: 2026eko urtarrilaren 26tik apirilaren 19ra bitarte (hau barne).
- Izen-ematea internet bidez soilik egingo da, <https://www.kronoak.com/> webgunean.
- Eskuragarri dauden 250 dortsalak izen-emate epean bukatuko balira itxaron zerrenda osatu eta kudeatuko genuke. Epe honetan bajen kasuan dirua itzuliko da eta falta diren dortsalak itxaron zerrendako hurrenkera **soilik** errespetatuz beteko dira. Izen-ematea gauzatzeko, 48 orduko epea egongo da.
- Apirilaren 20tik apirilaren 30era (biak barne) izen-emateetan egon daitezkeen aldaketa zuzenak (korrikalari batek bestea ordezkatzearen kasu) soilik kudeatuko dira. Epe honetan **EZ da bajarik onartuko eta ez da diru itzulketarik egingo**. Epe kontuak direla eta, antolakuntzak ezingo du kamiseten neurria bermatu aldaketa hauen kasuan.
- Maiatzaren 1etik aurrera **EZ da inolako aldaketa ez bajarik onartuko**.

5.- SEGURTASUNA

Antolakuntzak Ardura Zibileko eta Istripuko aseguruak izango ditu. Ibilbidean zehar ere Gurutze Gorriaren laguntza izango dugu. Antolakuntzako edo Gurutze Gorriko kideren batek



korrikalariren baten osasuna arriskuan ikusten badu, dagoen egoeragatik eta erretiratzea beharrezkoa dela antzematen badu, korrikalariak erabakia errespetatu beharko du. Hala egingo

ez balu, antolakuntza ez da korrikalari horren kargu egingo, eta hemendik aurrera egon daitezkeen ondorioak bere kargu geldituko dira.

Antolakuntzak parte-hartzaile guztiei mediku-azterketa bat egitea gomendatzen die. Norberak bere gain hartu beharko du kirol jarduerak dakarren arriskua.

6.- SEINALEZTAPENA

Ibilbidea, anoa gunek, arreta bereziko gunek eta kilometrajea (5 kilometro) behar bezala seinaleztatutak egongo dira, honetarako, banderillak, zintak eta kartel adierazle ezberdinak erabiliko dira.

7.- KONTROLAK

Parte hartzaile guztiek dortsala aurrealdean eta ondo ikusteko moduan eraman beharko dute une oro proba guztian zehar.

Probaren luze-zabalean antolakuntzak kontrol gunek jarri ditzake, hala izango balitz, bertatik igarotzea ezinbestekoa izango da, gunek hauetan egingo baitira arauzko igarotze-kontrolak.

Kontrolgunek:

Lasterkariak 3 orduko muga izango dute Landarbaso Trail kirol probako 18 kilometroak egiteko. Denbora muga horretatik aurrera lasterkariaren ardura izango da bere kabuz helmugara iristea.

8.- HORNIDURA-GUNEA

Helmugakoaz gain, 5 hornidura gunek egongo dira ibilbidean zehar 3 solido eta likido, eta 2 soilik likido. Hornidura gunek likidoetan ura eta edari isotonikoak egongo dira, solidoetan berriz, likidoz gain: produktu energetikoak, fruitu lehorrak, fruta eta txokolatea.

- Benta Txiki bidea (ura eta isotonikoak): 3,72 KM
- Pagotzarteko borda 1: 5,52 KM
- Pagotzarteko borda 2: 9,6 KM
- Aldura (ura eta isotonikoak): 12 KM
- Susperregi: 14 KM
- Helmuga: Listorreta



9.- SAILKAPENA

EMF-FVMen araudiaren arabera egingo da kronometratzea.. Sailkapena argitaratu ondoren, 30 minutu egongo dira edozein erreklamazio egiteko. Denbora hori pasa eta gero, ofizialak egingo dira sailkapenak.

10.- SARIAK

Emakumezko/Gizonezko nagusiak:

- 1.- Txapela, garaikurra eta 2 lagunentzat otordua.
- 2.- Garaikurra eta 2 lagunentzat otordua.
- 3.- Garaikurra eta 2 lagunentzat otordua.

Erreterriako lehen emakumearentzat eta gizonezkoarentzat "Hasier Erkizia saria" emango da.

Urdaburu Mendizale Elkarteko lehen emakumearentzat eta gizonezkoarentzat ere sari eta aipamena egongo dira.

11.- DORTSALEN BANAKETA

Dortsala eta lasterkariaren poltsa, maiatzaren 2an 11:30-13:30 eta 17:00-19:00 bitarte banatuko dira Urdaburu Mendizale Elkarteko egoitzan:

[Juan de Olazabal 23, Erreterria.](#)

Egunean bertan ere dortsalak jasotzeko aukera egongo da goizeko 8:30etatik 9:30etara, lasterketaren hasiera eta amaierako gunean (Listorretan).

12.- INGURUGIROA

Lasterketa mendi inguru zein lur pribatuetatik igaroko da. Ingurunea ahal beste zaintzeko, kontrol-guneetatik kanpo zaborrik ez botatzeko eskatzen zaie parte hartzaile guztiei. Helburu horretarako, hornitze guneetatik gertu zaborrontziak ezarriko dira, 25 eta 50 metrora. Oinarrizko arau hau betetzen ez duten korrikalariak probatik kanpo utziko dira.

13.- KONTSIGNA ETA DUTXAK

Lasterketa egunean kontsigna eta dutxa zerbitzua egongo da.

14.- IBILBIDEAREN SEGURTASUNA

Antolakuntzak proba ordezeko ibilbide batetik desbideratzeko, beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak egiteko eta eguraldiagatik edota beste eragileren batek hala eskatzen badu, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du.



15.- LAGUNTZA EZ-BEHARRETAN

Parte hartzaileek betekizun gisa izango dute istripuren bat izan duen edonor laguntzea eta kontrol-guneetan edozein ez-beharren berri ematea.

16.- ERANTZUKIZUNA

Antolakuntzak bere gain hartuko du ibilbidearen barruan gertatzen den edozein istripuren ardura, baina ez korrikalarien istripua zabarkeriak eraginda gertatzen bada. Parte-hartzaileen objektu pertsonalei dagokienean ere ez du ardurarik izango, helburu horrekin kontsigna zerbitzu bat izango baita helmugan bertan.

Parte-hartzaileek hirugarren pertsoneri eragindako kalte ororen erantzukizuna izango dute.

17.- PARTAIDEEN KOPURUA

Gehienezko kopurua: 250

18.- IRUDI ESKUBIDEAK

Partaide orok antolakuntza eta bere babesleei, lasterketan zehar egindako argazki edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko baimena ematen die epe mugarik gabe.

19.- ARAUDIAREN ONARPENA

Parte-hartzaile guztiek, parte hartzeagatik, araudi hau onartzen dute. Bertan agertzen ez dena EMF-FVM-ren araudia kontuan izanda ikusiko da.